



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 26koa. Horren bidez eskolako jantokiko zerbitzuaren finantzazio baldintzei buruzko jarduera amaitzen da.

Aurrekariak

1. (...)n bizi diren adingabe batzuen aitak kexa bat aurkeztu du semeek eskola jantokiko zerbitzua erabiltzeko pairatzen dituzten baldintzen inguruan. Semeek, herri horretan lehen hezkuntzako ikasketak egin ondoren, uneko hezkuntza plangintzak baldintzatuta, bigarren hezkuntzako ikasketak (...) BHIIn egin behar izan dituzte.

Kexarekin batera bidalitako (...)ko Hezkuntzako lurralde ordezkariaren ebazpenean azaltzen den moduan

- *“(...) BHIko jantokia ez da Hezkuntza Sailaren kudeaketa zuzeneko jantoki bat eta, beraz, ez du Sail horren diru-laguntzarik jasotzen.*
- *Kudeaketa zuzeneko jantoki-sistemari atxikitzea erabaki behar duena (...) BHIko OOG da, eta honek Hezkuntza Sailak egun kudeatzen duen eguerdiko garraioari uko egin behar dio.*
- *Hori gertatzen ez den bitartean, ez dago ikastetxe horretako ikasle-multzo bati bakarrik diru-laguntza emateko aurrekontuko partidarik, jakin badakigu ere ikasle horiek ezin dutela euren etxeetara bazkaltzera joan eguerdiko denbora-tartean”.*

Bere iritziz, hala ere, eguerdian garraio zerbitzurik ez duten garraiatutako ikasleak izateagatik kuota murriztua aitortu beharko litzaieke (garraiatutako ikasle gisa) (...) BHIk kudeaketa zuzeneko jantokiko zerbitzurik ez izan arren.

2. Badakigu jantokiaren zerbitzuak (kudeaketa zuzena) eta eguerdiko garraioa ez direla bateragarriak, ebazpen honetan azaldu den bezala¹.

Edonola ere, kexa honen inguruko jardute-aukerak aztertzean, kontuan hartuta hezkuntza-administrazio horrek bateraezintasun orokor horren salbuespen posible gisa jantokiko zerbitzuek garraiatutako ikasle guztiei arreta eman ezin dieten kasuak ezartzen dituela, kasu hauetan ere, ikasleek zerbitzu horiek eskuratzeko duten aukera-berdintasuna benetan betetzen dela bermatze aldera,

¹ AGINDUA, 2000ko martxoaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmiletako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituen.



eguerdian garraiorik ez duten ikasle horiei jantokiko kuotak murrizteko aukera berriz hausnartu beharko zela uste dugu, kudeaketa zuzeneko jantokietako jarraibidea erakunde baimenduen bidez kudeatzen diren beste jantokietara hedatuz, garraiatutako ikasleentzako onartutako kuotei dagokionez.

3. Hezkuntza arduradunei aukera hori proposatuta, lehen erantzun batean, hezkuntza administrazioko zuzendariak beken eta ikasketa-laguntzen deialdietara jotzeko aukera proposatzera mugatu zen, izan ere, horien artean jantokiko laguntzak biltzen dira. Horrela, erakunde honek proposatutako kuoten hobaria kontuan hartzeko aukerari erantzun arrazoitua ematea ekidin zuen.

Erantzun horrek gure hasierako proposamena errepikatuzera behartu gintuen eta, azkenean, bigarren txosten bat ematea eragin du, oraingo honetan Administrazio eta Zerbitzuen kontseilariordearena. Bertan zera adierazten du:

“Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuak 2000eko 22an emandako Aginduaren bidez arautu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmiletako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak. Agindu horrek, berriz, zioen azalpenean ezartzen duenez, "Gizarteari eskaini nahi zaion jantoki zerbitzuaren ereduak iraungo badu, autofinantzatu egin beharko da nahitaez. Hori dela eta, zabaltzeteko eta homogenizatzeko irizpideei zerbitzu-kostu guztiak autofinantzatzekoa gehitu behar zaie. Horrela, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak bere buruarentzat gordetzen du jantokia erabiltzearen ordaindu beharreko kuotak ezartzeko eskumena, eta apurka-apurka zerbitzu horren benetako kostuei egokitzekoa. Diru aldetik egoera kaskarrean dauden familiek heldu ahal izango diote ikasteko laguntzen deialdiari; izan ere, deialdi horretan, jantoki-laguntzak sartzen dira diruz lagundu ahal diren kontzeptuen artean.

lido horretatik bere sasoiaren eman zen txostenean, aipatzen zen edozein jantoki motatako ikasleek heldu ahal diotela ikasteko laguntzei, baldin eta ikastetxeak deialdi horretan ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Gaur egun, bekadun ikasleek ez dute zerbitzua ordaintzen kudeaketa zuzeneko jantokietan, eta bekarik ez duten ikasleek ordaintzen duten kuota, berriz, zerbitzuaren benetako kostua baino askoz merkeagoa da, Hezkuntza Sailak ekarpenak egiten ditu-eta zuzenean kudeatzen dituen jantokietako gastuei aurre egiteko, baina ez koutak arintzeko.

Bestalde, kontuan izan behar da orain, egoera ekonomikoa dela-eta, gastuari eutsi eta defizit publikoa kontrolatu behar denez, beharbada planteatu beharko dela gehiago ordaintzea bekadunak ez diren ikasleen familiek, kuotak jantoki-zerbitzuko kostu errealerara doitzeko aginduan sartzen den aurreikuspena betetzeko.



Hori dela eta, Sailak ezin kudeaketa zuzeneko jantokiekin jokatzeko modu hori du hedatu beste erakunde batzuk kudeatutako jantokietara; era berean, ezin du aztertu kuotak aritzeko aukerarik ematea”.

Oharbideak

1. Jakina den moduan, unibertsitatetik kanpoko hezkuntza zentro publikoetako eskola jantokien araudia jorratzean, EAEko hezkuntza administrazioak kudeaketa zuzeneko jantokien ereduari lehentasuna ematea erabaki du, batez ere lehentasuneko arretazkotzat jotzen direnei. Horien artean, garraiatutako ikasle askori arreta eskaintzen dietenak daude.

Kudeaketa zuzeneko jantoki eredu horren baimenak, beste baldintzen artean, sailak antolatzen eta finantzatzen duen eguerdiko garraio zerbitzuarekiko berariazko uko egitea dakar eta, horrek, gure ustez, neurri batean, garraiatutako ikasleentzat, urteroko instrukzioen bidez, zerbitzuen benetako kostua baino murriztagoa den kuota -ohikoak ere diren beste jankideei ezarritakoarekin alderatuz- ezartzeko erabakia azaltzen du. Kontuan hartu behar dugu berariazko finantziario neurria dela, beken eta ikasketa laguntzen deialdian izaera orokorrarekin ezarritakoarekiko desberdina.

Nolanahi ere, eta kudeaketa eredu horren berehalako aplikazioak eragin zitzakeen zailtasunen jakitun izanik, hezkuntza administrazioak aurreikusi du zerbitzu hori behar bezala baimendutako zuzenbide pribatuko erakundeek ere eskaini ahal izatea.

Horiei dagokienez, onartutako araudiak adierazten du beti ere kudeaketa zuzeneko jantokietarako ezarritako berezko eskubidea duten erabiltzaileen lehentasuneko ordena errespetatu beharko dela, horrela bada, bereziki: garraiorako eskubidea duen ikasleena. Hala eta guztiz ere, araudiaren xehetasun gehiago aipatzea saihesten da eta, horrek, besteak beste, garraiatutako ikasleentzat kuota bereziak ez ezartzea dakar, kudeaketa zuzeneko jantokiak erabiltzen dituzten ikasle garraiatuekin gertatzen ez den bezala.

2. Hori bai, horrekin guztiarekin, araudi horrek ustezko salbuespenak onartzen ditu deskribatu berri den funtzionamenduari dagokionez. Horrela bada, adibidez, garraio zerbitzuen zenbakia murriztuz gero, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eguerdiko garraio zerbitzua salbuespenez baimentzeko aukera eskaintzen du talde zehatzentzat, ondorioz, logikoki, jantokiaren zerbitzua erabiltzetik berariaz kanpo uzten direnak.





Horretan babestuta, hau da, salbuespen mota horien berariazko onarpenean, eta kexa eragin duen berezitasuna ezagututa -eguerdian garraiorik ez duten ikasleak eta, ondorioz, zentroko jantokiko zerbitzua erabiltzera derrigortuak, zerbitzu hori baimendutako erakunde batek kudeatzen duela hezkuntza plangintzaren baldintzak direla eta- erakunde honetatik ikasle horientzat bidezko tratua sustatzen saiatu gara, zehazki jantokiaren zerbitzuko finantziazio baldintzei dagokienez.

Hala ere, horren aurrean, hezkuntza administrazioak ekonomia mailako argudioak aurkeztera mugatu da, gastuen nahitaezko eusteari eta defizit publikoaren kontrolari buruzkoak, baina ez du eztabaidarako bestelako ekarpenik egin bidezko ikuspegitik egindako proposamenaren jatorria aztertze aldera.

Ondorioz, erakunde honek gai honetan izan duen esku-hartzeari amaiera ematea erabaki du ebazpen hau emanez, jarraian azaltzen den ondorioan laburbiltzen dena.

Ondorioa

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurrekontu erabilgarritasun aukera guztiak erabili behar ditu jantokiko kuoten murrizketa kudeaketa zuzeneko jantoki zerbitzurik ez duten eta eguerdiko garraio zerbitzurik ez duten hezkuntza zentro publikoetan derrigorrezko ikasketak egiten dituzten ikasle garraiatuei ere eskaintzeko.

